

horoskopoa

A R I E S
martxoak 21 — apirilak 20
Besteen esanei ere belarriak zabaldu. Zure esanekin ez duzu nahikoa.

T A U R U S
apirilak 21 — maiatzak 20
Gorputz polita duzu, baina egiten duen hotzarekin banujantzia janztez ere.

G E M I N I
maiatzak 21 — ekainak 20
Saltoka? Zer dela eta? Hotz egiten duelako? Zertarako dira bada berogailuak?

C A N C E R
ekainak 21 — uztailak 21
Hori da hori hitz-jarioa, hitz egin beharra... Arnasa hartzeko astia hartu gero!

L E O
uztailak 21 — abuztuak 23
Euririk ez duela egiten eta ardurata? Irtenbide erraza du horrek. Abesten hasi.

V I R G O
abuztuak 24 — irailak 23
Ipuerdiko mina? Hainbeste ordu je-sarrira egin ez gero, normala da.

L I B R A
irailak 24 — urriak 23
Jaten ez duenak ezin du kakarik egin, baina, gehiegi jateak ere, ez du hori errazten.

S C O R P I U S
urriak 24 — azaroak 23
Zure garaia da. Ondo portatu bazara, opari asko jasoko dituzu, baina...

S A G I T A R I U S
azaroak 23 — abenduak 23
Ez, ez zara munduko politena. Baina nahiko jatorra zara. Zer esango dizut, ba?

C A P R I C O R N I U S
abenduak 24 — urtarrilak 20
Zure ingurukoak ahaztu egiten dituzu. Gutxietsi egiten dituzu. Kontuz!

A Q U A R I U S
urtarrilak 21 — otsailak 18
Zer da hori? Eta hori zergatik? Non-dik? Baina zergatik? Ume txikien moduan?

P I S C I S
otsailak 19 — martxoak 20
Erlojuko orratzei begiratuta, ez dira orratzak bizkorrago mugituko.

Uxue Agirre

efemerideak

Charencey kondea jaio zen

1832. urteko azaroaren 8an Charancey kondea jaio zen. Filosofo eta hizkuntzalari frantses ospetsua izan zen. Hizkuntza zaharretan espezializatua. Euskara ikasi eta sakondu zuen. Abbadie eta Schoebel euskaltzaleekin, Parisko Hizkuntz Elkar-tea sortu zuen 1865ean eta Filologi Elkar-tea 1867an. Berrogei urtez jardun zuen Euskararen Hiztegi Etimologikoa osatu nahian. Azkenik, amaitu gabe utzi behar izan zuen lana. Euskararen misterio filologiak argitzeko asmotan, ehundaka atikulu idatzi zituen munduko aldizkari askotan. *L'année linguistique* aldizkaria berak sortu eta zuzendu zuen.

1670. Sorgintzat jotako nafarrak, Logroñon epaitu eta zigortu zituzten.

1879. Sebero Altube jaio zen Arrasaten (Gipuzkoa).

SANTUAK Hugo, Mauro, Matalaz.

telebista - irrataria

KABLE BIDEZKO TELEBISTA BERRIA 1.600 ETXETAKO PANTAILETARA IRISTEN DA HERENEGUNDIK

Ermuko Telebista Lokala martxan

■ Ermuko (Bizkaia) biztanleek herriko gertaerei buruzko ikusentzunezko informazio iturri berri bat dute astelehenaz —hilak 6— geroztik: Ermuko Telebista Lokala (ETL). Kable bidez funtzionatzen du Ermuko telebista berriak eta 1.600 etxetara iristen da.

I. Basterretxea / Donostia

ASTELEHENEAN egin genion elkarrizketa Ainhoa Lasueni, Ermuko Telebista Lokalaren (ETL) koordinatzaileari. ET-Lren lehendabiziko emisio eguna zen. Arratsaldea. Lehenengo saioa grabatzeko denbora gutxi falta. «Zelako eguna!» esan zigun Lasuenek. «Zorarena?» galdetu genion. «Bai, horixe: zorarena. Zelan gauden esatea zaila da. Urduri gaude denok. Erabat. Azkenengo ukituak goitik behera mila bider errepasatzen ari gara. Badakizu, lehenengo eguna da eta...»

Estuasunak, larritasunak eta urduritasunak tartean badira ere, jada telebistaz ere jaso ahal dituzte Ermuko berriak bertako biztanleek. Izan ere, martxan da Ermuko Telebista Lokala (ETL) eta Ermuko biztanleei herriko gertaera eta albisteen berri ematea da bere helburu nagusia.

Ekimen pribatutik sortutako telebista da; Pedro Aguadok gidatzen duen Cable Spot enpresak bultzatua, hain zuzen. Ermuko Udalak, berriz, Gure Etxea lokala utzi die ETL egia bihurtzeko. Hori dela-eta, pozik daudela azpimarratu digu Lasuenek; «izan ere, lokal ederra da». Hala ere, dirulaguntza eskuratzeko asmoz, Udalarekin hartu-emanetan daude. Herrian diren talde eta elkarteek ere harrera ona egin diteela adie-



Bost lagunek osatzen dute ETLko lantaldea, eta astegunetan egunero ordu erdiko informatiboa ematen dute, 20.30etan.

XOUSA SIMAL

razi digu Lasuenek. «Orain arte ez dugu oztupo handirik izan; izan ditugunak, behintzat, konpondu ditugu».

ETLko lantaldea bost lagunek osatzen dute: Estilbaz Onandia publizitate arduradunak, Miguel Angel Sanchez teknikoak, Mari Carmen Molina eta Ainhoa Lasuen ka-

zariak eta Juanma Cano aurkezleak. Arestian esan bezala, ETLren koordinatzailea ere bada Lasuen.

Hasteko, ordu erdiko informatiboa astegunero • Astelehenetik ostiralera bitartean ordu erdiko informazio saioa eskaintzen dute egunero, 20.30etan; eta hurrengo orduetan bost bat aldiz aieratzen dute informatiboa bera. Albistegiaren izena *Día a día* da. Albistegiaren lehen minutuetan herriko berriak ematen dituzte, eta azken minutuetan, aldiz, herriko norbaiti egindako elka-

rizketa edo gai baten inguruko erreportaia. *Día a día* informatiboaren barruan, *Egunez egun* izeneko tartea eskaintzen dute, eta hor albiste garrantzitsuenen laburpena aieratzen dute euskaraz.

Aurrera begira, berriz, kirolei buruzko saioa egitea dute helburu, baita eguraldiaren berri ematea ere. Aurrerago begira, ostera, solasaldi programa bat, umeentzako programa bat eta lehiaketak egiteko asmoa dute, noiz egingo duten zehaztea oraindik zail bada ere. «Pauso pauso». Zorte on!

Ekimen pribatutik sortu dute ETL; Pedro Aguadok gidatzen duen Cable Spot enpresak bultzatuta, hain zuzen

t . x . o . r . i . t . x . o . a . r . i . m . o . k . o . k . a

Gurutzefika

historikoeak asko alda dezakete akzio sozial orokorra.

Simon Peres munduari barkamena eskatuz agertu zen atzo goizean, adibidez, armada juduak Zisjordaniatik kanpo goiz hartan bertan aldegingo zuela esanez eta bake prozesuak inoiz baino abiadura handiagoa hartuko zuela adieraziz. Hori guztia egia bada, zerura zuzen joango zen Yitzhak Rabinen heriotzari esker gertatu da. Eta Rabin bera bezain protagonista bihurtu da, une berean, Ygal Amir, haren hiltzailea. Magnizidioek berez duten interes informatiboa ezin da ukatu, batez ere telebistarako. Zuzeneko hiletak bezalaxe. Baina inork ez dit esango Alcazerrako neskena Yitzhak Rabinen zuzenean ematea

bezain informatiboa denik. Gauzak bere tokian, mesedez.

ETBn diotenez, ezer ez da berdin. Ez hemen ezta Danimarkan ere. Gauzak logikoak eta ilogikoak gertatzen dira. Naturalak eta naturaren aurkakok. Onak eta txarrak. Beraz, han eta hemen dena binomiala eta manikeista da. Hego haizea eta ilargi betea, berriz, guztiz sinonimoak izaten ohi dira. Eta biok batera bisitatu gaituzte azkenaldian, azkoitiar haizetuen zorritxarrerako. Roman Sudupe, esaterako, *Pieta* baten antzera erori zen aurrekoan, nahi gabe, argazkilarien makina madarikatuen aurrean. Dirudienez, ilargiak guk uste baino eragin handiagoa du guregan. Likido guztiengan duen legea. Horrexegatik utzi diot edateari, badaezpada ere.

Ines Intxausti